

NIRE AURRERAPENA 3

1. Zer zenbakiren multiploa da 119?

- A 3rena
- B 7rena
- C 9rena
- D 11rena

2. Zer zenbaki da 56ren zatitzailea?

- A 3
- B 4
- C 5
- D 6

3. Honako zenbaki hauetatik, zein da 3ren multiploa?

- A Zenbaki bakoiti guztiak.
- B 3z edo 9z amaitzen diren zenbakiak.
- C Zifren batura 18 duten zenbakiak.
- D 89.

4. Esaldi hauetako bat okerra da. Zein da?

- A 0z amaitzen diren zenbakiak 5en zatitzaileak dira.
- B Zenbaki bikoitiak 2z zatitu daitezke.
- C Zenbaki bat 6ren multiploa bada, 2z eta 3z zatitu daiteke.
- D 2, 3 eta 5 zenbakiak 60ren zatitzaileak dira.

5. Zein dira 14ren zatitzaile guztiak?

- A** 2 eta 7
- B** 1, 2, 3 eta 7
- C** 1, 3, 4 eta 14
- D** 1, 2, 7 eta 14

6. Zenbaki-zerrenda hauetatik, aukeratu zenbaki lehenez soilik osatuta dagoena.

- A** 3, 13, 23, 43, 53, 63, 73, 83
- B** 2, 5, 10, 12, 15, 20, 22, 25
- C** 7, 11, 15, 19, 23, 27, 31, 35
- D** 13, 17, 23, 37, 43, 47, 53, 67

7. Zer zatitzaile komun dituzte 21 eta 28 zenbakiek?

- A** 1 eta 7
- B** 3 eta 7
- C** 1, 3 eta 7
- D** 1, 3, 4 eta 7

8. Ibanek 4na zigiluko gutun-azalak ditu. Zenbat zigilu ditu?

- A** 6
- B** 12
- C** 18
- D** 22

9. Ikastetxean, ikastalde bateko 36 kideak pertsona kopuru bereko taldetan antolatu zituzten. Zenbat kideko taldetan antolatu zituzten?

- ☐ A 5 pertsonako taldetan.
- ☐ B 7 pertsonako taldetan.
- ☐ C 9 pertsonako taldetan.
- ☐ D 10 pertsonako taldetan.

10. Berrogeita bi eranskailu oparitu dizkidate, eta nire koadernoaren azaletan itsatsi nahi ditut, koaderno guztietan kopuru bera jarrita. Aurkitu aukera okerra.

- ☐ A 2 eranskailu jar ditzaket 21 koadernotan, edo 21 eranskailu 2 koadernotan.
- ☐ B 3 eranskailu jar ditzaket 14 koadernotan, edo 14 eranskailu 3 koadernotan.
- ☐ C 6 eranskailu jar ditzaket 7 koadernotan, edo 7 eranskailu 6 koadernotan.
- ☐ D 8 eranskailu jar ditzaket 5 koadernotan, edo 5 eranskailu 8 koadernotan.